



**2011KO AZAROAREN 2KO**  
**EZ-OHIKO OSOKO BILKURA**

Lazkaoko Udaletxean, bi mila eta hamaikako azaroaren bian, arratsaldeko hiruretan, Lazkaoko Udal Osoa biltzen da, aurrez honetarako deialdia egin delarik, Azeari Andonegi Beristain Alkatearen lehendakaritzapean, ez-ohiko batzarraldia egin asmoz.

Bertaratutako zinegotziak honako hauek dira: Kepa Goenaga Alikostes, Andoitz Garmendia Zubeldia, Maialen Aldasoro Aranburu, Maria Aranzazu Bengoa Gorosabel, Patxi Albisu Estensoro, Felix Urkola Iriarte, Ane Irastortza Izagirre, Milagros Madrazo Rada.

Haizea Mendia Iztueta, Urtzi Iruin Arruti, Inazio Estensoro Eskisabel eta Juan Manuel Serna Portugal zinegotziak ez dira bertaratu.

Idazkari lanetan Iñaki Eskisabel Zurututzak dihardu.

**I.- 2011KO AZAROAREN 20KO HAUTESKUNDE MAHAJETARAKO MAHAIKIDEAK AUKERATZEKO ZOZKETA, AKATSEN ZUZENKETA.-**

Alkateak bilkurari hasiera eman ondoren, Eguneko Gai Zerrendako puntu bakarrari ekiten zaio, 2011ko azaroaren 20an egingo diren Espainiako Kongresua eta Senaturako Hauteskunde Nagusiak direla eta Hauteskunde Mahailetako partaideak aukeratzeko bigarren zozketa egiteari hain zuzen ere, 2011ko urriaren 27an egindako zozketan akatsak zeudela konturatu ondoren, eta guztia Hauteskundeetako Erregimen Orokorreko Lege Organikoaren 26.4 artikulua xedatutakoaren arabera.

Akatsa gaur egungo zentsua erabili beharrean aurreko zentsu bat erabiltzearen ondorioz gertatu da, eta hori konpontzeko, lehengo zozketan ateratako 10 lagun, gaur egun Lazkaon zentsatuta ez daudenak edo zentsatuta egonda ere bere sekzioa eta mahaia aldatu dutenak, aukeratzeari ekiten zaio.

Zozketa horretarako prestatutako informatika programa baten bidez egiten da, datuak Lazkaoko hautesle zentsutik hartzen dira, Instituto Nacional de Estadística erakundeak bidalitako CONOCE programatik hain zuzen.

Zozketaren ondoren eta lehengoan egindako zozketan ateratako datuei hauek gehitu eta gero, Lazkaoko Udalerrian eratuko diren 6 mahaietarako presidente eta bokalak osatuta gelditzen dira, titular nahiz ordezkioak, hauen datuak horretarako prestatutako orrietan jasotzen direlarik bere espedientean.

**II.- BILERAREN AMAIERA.-**

Eta eztabaidatzeko beste gairik ez dagoenez, Alkateak bilera amaitutzat jotzen du, arratsaldeko hirurak eta laurden direnean nik, Idazkariak, guztiaren akta jaso eta ziurtatzen dudalarik.



*[Handwritten signature in blue ink]*